

Eskola Txikietako Formazioa: “Adin aniztasuna gela berean”

Formazioaren helburua:

Eskola txikietan denok gara beharrezkoak, elkarri lagunduz eta elkarrengandik ikasiz norberaren ezagutza eraiki eta garatu ahal izateko.

11-12rako PLANGINTZA

➤ Iraileko saio orokorrak berri-berrientzat

Lasarten eta Zarautzen hiru orduko saio bana izango da (*)
Zarautzen: irailak 19, astelehena, eguerdiko 11:30etan
Lasarten: irailak 22, osteguna, eguerdiko 11:30etan

➤ Mintegiak/Taldeak

- Koordinatzaileak
 - Hiruhilabetekoan bitan elkartuko gara eskolako lana antolatzeko eta bideratzeko.
 - Eskolako Ikasketa-burua izatea komeni da. Berak hartu beharko luke proiektuaren ardura eskolan.
- Sakonketa
 - Proiektuekin lotutako gaiak edota ikuspegi honen aspektu zehatzak landuko ditugu.
 - Teoria eta praktika uztartzen saiatuko gara.
 - Saioen aurretik irakurgairen bat irakurri beharko da.
 - Batzuetan zuen esperientziak eta eskoletako adibideak ekarri beharko dituzue.
 - Agian ikasleekin ikerketaren bat egiteko proposamena egingo da.
- Idazle/Dokumentalistak
 - lazko dinamika berberari jarraituko diogu: talde batek esperientzien itzulpena egiten segituko du eta beste taldeak dokumentazio-lanean. Jende berria apuntatuz gero, ikusiko dugu zerbait aldatu edo gehitzen dugun.

- Berriak I
 - Mintegi hau eskolan edota ikuspegi honetan berri-berriak direnentzat dago zuzendua.
 - Azken lau urtetan jorratutako oinarrizko gaiak errepikatuko ditugu (espero dut hobekuntzaren bat sartuko dudala urte hauetan ikasi dudanari esker...): psikogenesia, irakurketa eta idazketaren estrategiak, irakaslearen rola...
 - Aurretik zehaztuko dugu saio bakoitzean zer landuko dugun. Beraz...
 - ...azkeneko urtetan gairen bat galdu dutenak-edo etor daitezke momento puntual batean, nahiz eta matrikulatuta ez egon.

- Berriak II
 - Mintegi hau iaz Berrien mintegian egon zirenei dago zuzendua. Oinarrizko gaiak jorratzen jarraituko dugu. Kasu praktikoren bat ere aztertuko dugu.

- **Proiektuak:** lazko kurtso amaieran hitz egin genuen bezala, eta zuen balorazioak aztertu ondoren, hauxe duzue behin-behineko proposamena. 2. eta 3. trimestrekoa Koordinatzaileekin zehaztuko dugu eta behar diren aldaketak egingo dira.
 - 1go hiruhilabetean
 - ELKARRIZKETA
 - PROBLEMAK

 - 2garren hiruhilabetean
 - ARTEA-BIOGRAFIA-HISTORIA
 - GEOMETRIA-DENBORA

 - 3garren hiruhilabetean
 - ALBISTEA
 - MATEMATIKA ?

- *Horretaz aparte, **kurtsoan zehar egiteko** beste ideia eta proposamen asko daude zuei luzatzeko... bilera ezberdinetan azaltzen joango dira. **Adituen hitzaldiak ere** izango ditugu, momentuan jorratzen dugun gai edo arloaren ingurukoak.*

Aurten ere, asmo ugari eta ez makalak...